



EBAZPENA, 2021eko martxoaren 2koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe dauden Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza-Eskola ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioen arteko 2020/2021eko lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitaratzen da.

Hezkuntza sailburuaren 2020eko urriaren 22eko aginduak (2020eko azaroaren 4koa EHAA), Katedradunen, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionario irakasleen artean 2020/2021eko ikasturtean lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera, eta parte hartzen duen pertsonalari emandako behin betiko puntuazioak kontuan hartuta, behin-behineko destinoak esleitu dira.

Horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza-Eskola ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioen arteko 2020/2021eko lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitara ematea.

Bigarrena.- Erreklamazioak aurkezteko eta destinoei uko egiteko epea irekitzea, 2021eko martxoaren 5etik 11ra, bi egun horiek barne.

Hirugarrena.- Erreklamazioa aurkeztu edo uko egitea ondorengo Interneteko helbide honen bidez egin behar da, adierazitako epean <https://irakaslegunea.euskadi.eus>
Uko egitea bada, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia ere aurkeztu beharko du.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 2an